



Ezohiko hauteskundeak

Eusko Legebiltzarrerako bozak EAJK irabazi ditu; Lasarte-Orian, berriz, EH Bildu izan da lehen indarra aurreneko aldiz / 8-9

Beste urrats bat

Beterri-Buruntza mankomunitatea eratzear dago; estatutuak behin-behinean onartu dituzte / 3

Ikasturteko azken ohiko udalbatzar saioa egin dute korporazioko kideek; zenbait gai joratu dituzte / 4

Kiroldegi berriaren exekuzio-proiektuaren idazketa etenda dago; errekurtoa jarri du Arkitektoen Elkargoak / 11

Parodia kultur etxean izango da, uztailaren 26an 22.00etan

Sarrerak eskuratzeko eman izena uztailaren 20ra arte

Pertsonako 2 sarrera eskuratu ahalko dira

Sarrerak uztailaren 22an zozkatuko dira eta kultur etxean jaso beharko dira uztailaren 23an 16.00etatik 18.00etara.

SANTA ANA
2020

Sarrerak eskuratzeko:
695 785 389 (whatsapp)
edo kultura@ttakun.eus



Auzitegi Gorenaren epaiari erantzuna

Lasarte-Oriako Udalak adierazpen instituzional bat plazaratu du Auzitegi Gorenak berriki emandako epaiaren harira. Udalak 2017tik jasota dauka 16 urtetik beherakoentzako jarduerak euskaraz izan behar dutela, antolatzaileek laguntzak jasotzeko aukera izan dezaten

Txintxarri

Auzitegi Gorenak berriki emandako epaiaren harira, Lasarte-Oriako Udalak adierazpen instituzional bateratu bat argitaratu du. "Udalak errespetatu egingo du epaia, baina ez dator bat emandako arrazoiekin. Izan ere, edozein sententzia judizial zor zaion errespetuaz gaindi, uste dugu sententziak ez dituela udalek hizkuntza politiken alorrean dituzten eskuduntzak aintzakotzat hartzen, batetik, eta hizkuntza berdintasunaren oinarriko printzipioaren kontra egiten du, bestetik".

Udalak nabarmendu du bere hizkuntza politikaren zutabeetako bat izan dela "belaunaldi berriak ahalik eta elebidunenak" izatea lortzea, 1986. urtean sortu zenetik. "Belaunaldi berriek D ereduan ikas dezaten sustatzeaz gain, eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz eskaintzeko ahalegin handia egin du urte hauetan guztietan zehar, jarduerak sortuz eta lagunduz". Herriko gainerako agenteek sortutako egitasmoak "gero eta euskaldunagoak" izatea sustatu duela ere gogoratu du. *Kalea Maixu!* jarri du adibidetzat.

Ordenantza arautzailea

Udalak ordenantza arautzaile bat prestatu zuen 2017an, herriko elkarteei diru laguntzak emateko. Auzitegi Gorenak orain indargabetu duen baldintza jarri zuen: jarduera 16 urtetik beherakoei zuzendutakoa bada, euskaraz izango dela zehazten duena. Hiru arrazoi nagusiri kasu eginez hartu zuen erabakia.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 legeak udalari ematen dion eskumenean oinarritu zen, 7.2 artikuluan jasotzen dena garatuz. Horrez gain, zehaztu du herriko haur eta gaztetxo guztiak gai direla eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz egiteko. "Guztiek



Lasarte-Oriako Udala, kanpotik. TXINTXARRI

ALDUNDIAREKIN ETA JAURLARITZAREKIN ELKARLANEAN ARI DA UDALA, "ORDEZKO FORMULA" BILATZEKO

ikasten dute euskaraz ikastetxeetan eta gainera, legez, bi hizkuntza jakinez amaitu behar dute derrigorrezko hezkuntza aldia, epaimahaiko bi boto partikularrek azpimarratzen duten moduan". Hirugarrenik, udalak aipatu du gaztetxo guztiei komeni zaiela jarduera horiek euskaraz egitea, besteak beste, gustuko eremuan euskaraz egiteak hizkuntza hori modu sendagoan eskuratzen laguntzen dielako, eta ondorioz, elebidun osoagoak izaten.

Bi bide

Lasarte-Oriako Udalak bere sorreratik ezarritako helburua eta hizkuntza-politika mantenduko duela adierazi du, eta bi bide prestatuko dituela xedea betetzen duela bermatzeko: batetik, "azken 30 urteetan egin

bezala", sustapen neurriak, eskola-orduz kanpo euskara gero eta gehiago erabil dadin; eta, bestetik, neurri legalak. "Auzitegi Gorenaren epaiak udalaren ordenantzan ezarritako baldintza indargabetzen badu ere, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean ari gara horren ordeko formularik zuzenena zein izango den zehazten".

"Amaitzeko, Lasarte-Oriako Udalak adierazi nahi du udalak berak arlo honetan egin duen hizkuntza politikak eta aipatutako ordenantzan jasotako baldintzak ez duela zer ikusirik herritarrek diskriminatzearekin. Alderantziz, udalaren helburua da inor ez diskriminatzea, eta horretarako bideak dira belaunaldi berrietako kide guztiek bi hizkuntzak irakaskuntza sistemaren bidez bereganatzea eta ikastetxetik kanpo ahalik eta euskarazko jarduera gehien izatea, horrela frogatu baitute urteetako esperientziak eta ikerketa ugari, nabarmendu du Lasarte-Oriako Udalak, asteon plazaratutako adierazpen instituzionalean.



Maskara derrigorrez jantzi behar da espazio publikoetan. TXINTXARRI

Metro eta erdira egon edo ez, maskara derrigor jantzi behar da

Iragan asteburuan kasu positibo berri pare bat erregistratu dira Lasarte-Orian; eskualdekoek igotzen jarraitzen dute

Txintxarri

Metro eta erdira edo gehiagora egon edo ez, herritarrek maskara jantzi behar dute derrigorrez aire zabaleko zein espazio itxietako eremu publikoetan. Lakuak esan du COVID-19aren berragertzea geratze aldera hartu dutela neurria, eta datozen asteetan beste batzuk iragartzea ez dutela baztertzeko, segun eta pandemiak nola eboluzionatzen duen.

Taberna eta jatetxeetan ezingo dute hamar pertsonak baino gehiago eseri mahai berean, eta musukoa edaterako edo jaterako orduan bakarrik kendu ahalko dute. Horrez gain, ordutegiak zabaltzeko baimenak atzera botako dira, baita orain arte emandako denak ere. Hondartza eta igerilekuetan hamar pertsonak baino gehiagok ezingo dute batera egon, eta maskara kendu ahalko dute soilik bainatzera doazenean, edo etzanda daudenean eta beste

pertsonekiko metro eta erdiko distantzia mantentzen denean. Kirola egiterako orduan edo naturguneetan egotean, esate baterako, ken daiteke.

Koronabirus kasuak

Zenbait asteren ostean, Lasarte-Orian kasu positibo berri pare bat erregistratu zituen Osakidetza. Asteon ez dute beste kutsatzerik iragarri gurean, baina bai eskualde mailan: Andoainen lau eta Hernanin beste bat.

Azkenaldian foku ugari agertzen ari dira, Gipuzkoan bereziki. Ordiziakoa izan zen aurreko astean, eta Getariakoa honetan. Horrez gain, Donostian hamar positibo atzeman zituzten asteazkenean, eta beste zortzi Tolosan. Osasun Sailak uztailearen 15ean bildutako datuak hauek izan dira: 58 positibo EAEko hiru lurraldeetan; horietatik 31, Gipuzkoan.

Testigantza-liburu baten aurkezpena atzeratu dute

Lasarte-Oriako Udalak eta Islada Ezkutatuak taldeak jakinarazi dutenez, atzeratu egin dute *Testigantza. Genozidio ezkutatu baten islak* liburuaren aurkezpena, COVID-19a dela eta. Martxoan egitekoak ziren, eta pandemia hastearekin batera ekitaldia beste data batean egitea pentsatu zuten, unean uneko osasun baldintzek hori ahalbidetzen zutenean.

"Denbora hori igarota, ez dugu ikusten segurtasunik aurkezpen ekitaldia bermatzeko, eta etorkizun hurbilean ere ez".

Horren ordez, testigantza eskaini duten pertsonen uztailearen 20tik 23ra liburuaren ale bana jaso ahalko dute Antonio Mercero gunean, 10:00etatik 13:00era. 1936ko estatu-kolpearen ondorioak jasan zituzten pertsonen lekukotzak jasotzen dira liburu horretan. Islada Ezkutatuak taldeak, udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ondu dute, elkarlanean.

Beterri-Buruntza mankomunitatea eratzear

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udal-korporazioetako ordezkariak Hernanin batzartu dira astelehenean, eskualde mailako Batzar Nagusian mankomunitateko estatutuen lehenbiziko onarpenari bide emateko

Txintxarri

Eskualdeko Batzorde Sustatzaileak gidatutako batzarrean, Mari Jose Izagirre lehendakariak, estatutu hauen onarpenarako helburuak eta prozeduraren bilakaeraren berri eman die Biteri kultur etxeko areto nagusian bildutako ordezkari politikoei. Horrela, aurreko legealdian sei herritako udalbatzek hartutako konpromisoa berrestez gain, Beterri-Buruntzako tokiko garapen ekonomiko eta sozialerako mankomunitatearen eraketan parte hartzeko prozesuan beste urrats bat eman dute. 2017. urtetik udalen arteko lankidetzahitzarmen bidez funtzionatzen duen egiturari "sendotasun juridiko eta administratiboa" eskainiko zaiola azaldu dute, tokiko garapenaren eta sustapen ekonomiko eta enpleguaren eremuan lanean jarraitzeko.

Estatutuetan zehaztu bezala, mankomunitateak legezko helbidea Hernanin izango du, baina modu deszentralizatuan funtzionatuko du; administrazio-leihatila bana ordezkaturia izango du udalerrri bakoitzean.

Mankomunitatearen jarduerak ere bildu dituzte estatutu berrietan, eta ekitaldian azaldu dutenez, giza garapen jasangarria



Beterri-Buruntza eskualdeko udal ordezkariak asteleheneko ekitaldian. TXINTXARRI

erraztuko duten jarduerak proposatzea eta sustatzea, eta horien bidez, ingurumena errespetatu, sozialki arduratsua den jarduera ekonomiko sustatu eta herritarrak partaide sentituko diren prozesuak eskaintzea da helburua. Orain arteko enplegu sustapena, ekintzailtza eta enpresa zerbitzuak ere jasota gelditzen dira.

Jarduera hauen guztien bizkardura eta bisioa eskualdeko Garapen Sozioekonomikorako Planean jasota egoteko aukera ere ahalbidetzen du estatutu hauen onarpenak, eta aipamen berezia egiten zaio une honetan

COVID-19aren ondorioei aurre egiteko eskualdeko ehun sozioekonomikoa berrindartu eta etorkizuneko erronkak elkarrekin lantzeko une estrategikoari.

Hernanin, lehen onarpena

Aho batez egin dute lehen onarpena, baina, orain, GAO Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, alegazioak aurkeztuz gero, horiek ebatziko dira lehenik. Behin pauso hori gaindituta eta aldundiaren oniritziarekin, udal bakoitzak bere osoko bilkurara eramango du gaia, behin betiko onartzeko.



Basaundi Balararen guneko argazkia. TXEMA VALLES

Basaundi Balarako birgaitzea ahalbidetzeko laguntzak, abian

Irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa hobetzeko diru laguntzak eskatzeko aukera dute herritarrek azarora arte

Txintxarri


Lasarte-Oriako Udalak Basaundi Balararen birgaitzea sendotzeko 156.000 euroko diru laguntza lerro bat ezarri du. Xedea auzoko etxebizitzetako irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa hobetzeko lanak finantzatzea da.

Laguntza hauek Basaundi Balarako 1 zenbakitik 16ra bitarteko etxebizitza eta lokaletako jabeen zuzenduak daude. Udalak azaldu duenez, beste laguntza-programa batzuek finantzatzen ez duten birgaitze-kostuaren zatiari aurre egin ahalko diote era honetan auzotarrek, baita eraikinen txosten teknikoetatik eratorritako interbentzioak egin ere. Hala nola, arrapalak eta igogailuak jarri edo etxebizitzaren kalifikazio energetikoa gutxienez maila batean hobetu ahal izateko ingurutzaila hobetzea.

Gainera, saneamendua, ur-hornidura, argindarra, telekomunikazio, gas eta suteen aurkako segurtasunarenako instalazioak berritzen dituztenek ere onurak izango dituzte. Era berean, lehen mailako energiaren kontsumoa murrizteko jarduketak borondatez finantzatu ahal izango dira.

Diru laguntzaren zenbatekoa hiru urtetan banatuko da: 2019an, 69.000 euro; 48.000 euro, 2020an eta 39.000 euro, 2021ean.

Lasarte-Oriako udalak azaldu duenez, laguntza zuzenak dira eta norbanakoaren ebaluazio-sistemaren bidez banatuko dira. Eskatera 2020ko azaroaren 30era arte egin ahalko da, Lasarte-Oriako Udaleko Erregistro Orokorrean. Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste laguntza publiko edo pribatuekin.



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

Urtinea Loradendaren eskutik **LORE-SORTA** eder bat zozkatuko dugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eman izena uztailaren 18a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean,
eta 646. 82 44 66 (whatsapp)

MAITE

ESTETIKA ARETOA




Aurpegiko eta gorputzeko azala

- ✓ BERROREKATU
- ✓ BERRESKURATU
- ✓ BIRSORTU

Ehunen birsortzea eta giharren indartzea tratamendu bakarrean.

Uisfin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria



EAJko Estixu Alkorta ez beste ordezkari politiko guztiek parte hartu dute uztailaren 9ko ohiko udalbatzarrean. TXINTXARRI

Amaitu dira ikasturteko ohiko udalbatzarrak

Lau puntuko gai ordena aurkeztu du udalbatzak ikasturteko azken saioan, eta azken horretan, galdera eta erreguetan gai asko mahaigaineratu dituzte alderdi ezberdinek. Zabaleta Auzolan elkarteak aurkeztutako mozioa ere hizpide izan dute

Maddi Zaldúa

2020ko maiatzaren 14an ospatutako aktaren onarpenarekin ekin diote ikasturteko azken ohiko udalbatzarrari; aho batez onartu eta bigarren puntuari eutsi diote. Lasarte-Oriako Udalaren merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzu pertsonaletako establezimenduak sustatzeko kontsumo bonuen oinarrien onarpena egin dute. Aho batez onartu, eta bozketaren ostean, bozka azalpena egin dute alderdiek.

Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos (ELOP) alderdiko bozeramaile David Aresek esan du alderdi guztiak adostasunera iristek "poztu" egin duen arren, bonuak erabiltzeko epealdia luzeagoa izatea gustatuko litzaiokeela.

EAJko Boris Nogalesek hartu du hitza gero, eta nabarmendu du "eroso" sentitu direla Sozioekonomia batzordeburuak gaiarekiko bideratu duen lan egiteko moduarekin. Azaldu du Lasarte-Oriako EAJ ez datorrela bat oinarrien filosofiarekin, baina laguntzeko prestutasuna agertuz, bost zuzenketa aurkeztu dituztela, eta horietatik bi hartu dituztela kontuan: "garrantzitsuenak".

EH Bilduko Uxue Loinazek ere hitz egin du gaiaz. Azken hilabete hauetan, herriko merkataritza laguntzeko martxan jarri diren diru laguntza lerro ezberdinak "beharrezkoak" direla azpimarratu duen arren, uste du "nahiko motz"

geratzen direla, eta ez diotela arazoari errotik heltzen: "Momentuko egoerari erantzuten diotela soilik". Gaineratu du, udalak aurrerantzean ere merkataritza eta ostalaritzaren sektorea sustatzeko baliabideak hartu beharko dituela.

Zabaleta Auzolanen mozioa

Pasa den urteko ekain hasieran, auzo elkarteari zuzendutako lokala egokitzeko lanak amaitu bazituzten ere, oraindik, auzoaren erabilerarako espazio hori erabili ezinik daude bizilagunak. Horregatik, mozio bat aurkeztu dute, udalari eskatuz uda honetan bertan lokala auzo elkartearen eskuetan uzteko beharrezko eta benetako ahalegina egin dezala. Aho batez onartu dute eskaera.

Ekaineko ohiko udalbatzarrean erantzun gabe geratutako bi gaien inguruan hitz egin dute gero; EH Bilduren galderari erantzunez erraustegiak isuritzen dituen dioxina eta furanoen kontrolen maiztasunaz lehenik. David Mateos Zerbitzuetako zinegotziak esan du erraustegiari lehen urtean bi hilabetero egingo zaizkiola azterketak, eta lehen urtea pasata, urtero, hiru hilabetero. EH Bildu kezkatuta agertu da erantzunarekin, arriskua 365 egunez eta 24 orduz dagoela azpimarratuz. Bigarrenik, EAJk parte hartze prozesuez egindako galderari erantzun dio Nagore Duran parte-hartze

zinegotziak; aurreikusita dituzten parte-hartze prozesuez berri eman du.

Galdera eta erreguen tartean ELOPk bi galdera luzatu ditu; udalaren antolaketa eta lanpostuen inguruko estudioa noiz aurkeztu asmo duten (EAJk ere bat egin du galdera horrekin) eta 2018. urteaz geroztik airean dagoen Udaltzain postuen lan eskaintza publikoa egingo duten ala ez. Azken horri alkateak lan deialdia martxan jartzeko idatzizko-agindua sinatu duela erantzun dio Lourdes Acevedo PSE-EEko zinegotziak.

EAJk udal langile baten erretiro-pagaren inguruan udalak jasotako salaketaren ebazpenik badagoen galdetu du, eta Acevedok erantzun dio jarraitutako prozesuk eman dezakeenaren zain daudela.

EH Bilduren txanda izan da gero. Leroy Merlinek herrian sor dezakeen inpaktu sozioekonomikoaren inguruko azterketa egingo duela galdetu dio Jon Martinek udal gobernu taldeari. Nuria Fernandez Sozioekonomia batzordeburuak erantzun dio gaur-gaurkoz ikerketa hori egin gabe dutela, baina egiteko asmoa agertu du.

Hortaz gain, kiroldegi berriaren prozeduraren baliogabetzeaz eta lurrazpiko zaborrontzien inguruko galdeketa ere galdegin du, baina gai horiei dagokien batzordeetan erantzun zaiela jakinarazi die alkateak.

Jone Altuna zendu da

Lasarte-Oriako Udalean urte luzez zinegotzi lanetan ibilitako Jone Altuna Garmendia herritarra zendu da berriki. Astelehenean egin zuten hileta San Pedro elizan. 1997. urtean hasi zen udal korporazioan lanean, PSE-EE alderdian afiliatu eta gero. Hurrengo 24 urteetan, 2011ra arte, Kultura eta Hezkuntza batzordeburua izan zen.



TXINTXARRI



Hainbat urte eta gero, larrialdi irteera dauka Biyak Bat egoitzak. TXINTXARRI

Lau hilabete eta gero, Biyak Bat ireki dute berriro

Zenbait zerbitzu eskaintzen hasi dira: taberna goizez eta arratsalde, batetik; eta ile-apaindegi eta kiromasaje zerbitzuak bestetik, aurrez hitzordua hartuta

Txintxarri

Biyak Bat egoitzara neurriak bete gabe sartu nahi duenak ezin du esan aurretik ez zekienik, ate, pareta, leiho eta abarretan makina bat ohar jarri baitituzte zuzendaritzako kideek. Alarma Egoera dekretatu eta lau hilabete pasatxora erabaki dute egunerokoa pixkanaka berreskuratzen hastea, eta egiten hasi diren urratsak oso ongi pentsatu dituzte. "Irrikaz geunden berriro egoitzara etortzeko; ea ez ditugun atzerapausoak egiten hurrengo aste eta hilabeteetan, badirudi koronabirusa berriro indarra hartzen ari dela", nabarmendu dute zuzendaritzako kideek. Egoitzan ezingo dute 60 pertsonak baino gehiagok egon batera.

Horietako zenbaitek erakutsi dizkiote TXINTXARRI-ri berriro irekitzeko egin dituzten aldaketak. Esate baterako, gel hidroalkoholikoa banatzen duten gailuak jarri dituzte egoitza osoan zehar. Beheko solairuko areto gehienak itxita mantendu dituzte: ile-apaindegia eta kiromasajeko gela zabaldu dituzte soilik, ordutegi jakin batekin. Ordua aurrez hartu behar dute 943 363 964 telefonora deituta edo biyakbat@gmail.com helbidera idatzita. Bulegoarekin harremanetan jartzeko bideak dira horiek. Ostegun goizean bost pertsona zebiltzan bertan lanean, maskarak jantzita eta beirazko pantaila babesgarriak jarrita arreta-gunean. Astearte eta ostegunetan egingo dute lan, 10:00etatik 12:30era.

Sareren bizikleta itzulia, uztailaren 23tik 25era

Nafarroa eta Gipuzkoa batuko ditu aurreneko etapak, Lekunberritik Hernanira arteko bidea eginez. Beterri-Buruntza eskualdeko herritarrek zenbait herri eta gunetan bat egin dezakete 'Izan Bidea' egitasmoaren baitako ekimenarekin. Sareren web orrialdean izena eman behar da

Txintxarri

Bizikleta itzuliaren aurtengo edizioa "berezia" izango dela iragarri du Sarek, COVID-19ak sortutako egoerara moldatutakoa. Hiru etapa egingo dituzte uztailaren 23tik 25era, ostegunetik larunbatera, Hego Euskal Herrian zehar. Beterri-Buruntza mailako aurkezpena egin dute Andoainen, eta azpimarratu eskualdean 24.807 kilometro egiten dituztela astebururo euskal presoan senide eta lagunak, eurak bisitatzera joateko –horietatik 2.680 lasarte-oriatarrek egiten dituzte, Sareren datuen arabera–. "Bada garaia presoan etxeratze prozesua gauzatzeko".

Sareko kideak aldarrikapen pedalkadak emateko gogoz daude aurtun ere. Eskualde mailako aurkezpena egin dute asteon, eta uztailaren 23ko etapari parte hartzera animatu. Zenbait herri eta gunetan bat egin ahalko dute: Andoainen, 11:45ean, Sorabillako Mendiola lantegian; Urnietan, Iruraingo gainean, 12:00etan; eta, Hernanin, 12:30ean, Txantxillako errotondan. Gero erdigunetik ibiliko dira.

Ostiraleko ibilbidea Urduñatik Durangora artekoa izango da, uztailak 24, Araba eta Bizkaia lotuz; eta, azkenik, larunbatean, hilak 25, Euskal Herrian dauden



Eskualdeko Sare taldeek asteon egin dute aurkezpena. LASARTE-ORIAKO SARE

lau espetxeetatik hiriburuetaraino iritsiko diren lau etapa. Hauek dira: Zaballa-Gasteiz, Basauri-Bilbo, Iruñeko espetxea-Iruñea eta Martutene-Donostia. Ekimenean parte hartu nahi duten herritarrek Sareren web orrialdean izena eman dezakete.

Eskualdeko Sare taldeek nabarmendu dute hiru hilabete igaro behar izan dituztela euskal presoek euren senide eta lagunak bisitarik gabe, COVID-19aren pandemia dela eta. "Ezjakintasuna eta ziurgabetasuna izan dira nagusi, eta beldurra ere bai, espetxeetako gabezia higieniko

eta masifikazioaren ondorioz; urruntze politikak are gehiago zaildu du egoera". Bisitak egiteko aukera berreskuratu ostein, senide eta lagunak berriro ere "ehunka eta milaka kilometro" egin behar dituztela gogoratu dute. Beterri-Buruntza eskualdean, adibidez, 24.807, bidaia guztiak batuta. Horietatik 2.680 lasarte-oriatarrek egiten dituzte: Cordobara 1.680 –Javi Gallaga herritarra daukate preso han– eta Lannemezanera 500eko bi bidaia –Ibon Fernandez Iradi eta Aitzol Iriondo lasarte-oriatarrek daukate preso han–.



Dozenaka herritarrek bat egin dute Lasarte-Orian Aire Garbiaren deialdiarekin. TXINTXARRI

Aire Garbia: "Gero eta okerrago ari gara hondakinekin"

Plataformak salatu du Lasarte-Oriak hiri-hondakinen %45 besterik ez duela gaika bildu 2019an. "Azken furgoian goaz"

Txintxarri

Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak elkarretaratzea egin du Okendo plazan, Lasarte-Oriaren hiri-hondakin bilketaren "datu eskasak" salatu eta Zubietako erraustegiaren egitasmoa deitoratzeko. Dozenaka herritarrek bat egin dute deialdiarekin. *Birziklatu. No a los malos humos* lelodun afixa eskuetan.

"Kezkatu egin gaituzte San Marko Mankomunitateak orain dela gutxi publiko egin dituen datuek: hiri-hondakinen %45 besterik ez du gaika bildu Lasarte-Oriak 2019an", nabarmendu dute plataformako kideak. 2018an baino hondakin gutxiago bildu ditu gaika Lasarte-Oriak, urte horretan %46,6koa baitzen portzentajea. "Gipuzkoako batez bestekoa %57 da, eta oso-oso urruti gaude gu; gero eta okerrago ari gara hondakinekin, gero eta lotsagarriago".

Datuekin eta Lasarte-Oriaren beharrezko joerarekin arduratuta, plataformak uste du udalak ez duela "ezer praktikorik" egiten hiri-hondakinen gaiaren inguruan: "Hitz potolo ederrak esaten dituzte, baina lurrazpikoan galdeketa kontuarekin denbora galtzen ari da, hondakinen ontziak lurgainekoak edo lurrazpikoak izateak ez duelako inongo eraginik bilketa tasan". Uste du praktikak erakutsi duela sistema "txarra, garestia eta kutsakorra" dela.

"Udala denbora galtzen ari da, arrazoi nabarmen batengatik: gure herritik ikus daitekeen Zubietako erraustegia elikatze. Gutxi batzuen interes ekonomiko eta politikoak herritarron osasunaren gainetik daude", kritikatu du plataformak. Azpiegitura horren alde egiteko, plataformaren aburuz, "guztiak" balio du, "gezurrek barne".

Klima aldaketa aztertu dute ikasleek Agenda 21 programan

Herriko Lehen Hezkuntzako bi ikastetxeetako 1.300 ikaslek parte hartu dute; txostena bidez aurkeztu diote udalari

Txintxarri

Klima aldaketari buruz ikasi eta hausnartu dute Lehen Hezkuntza herrian egiten ari diren mila ikaslek baino gehiagok, Eskola Agenda 21 programaren baitan. Ezin izan dute aurreikusitako bezala

lan egin ordea, martxo erdialdean ikasgelak utzi eta ez direlako itzuli, COVID-19aren pandemia dela eta. Dena dela, ikasturtean zehar landutakoa txosten batean bildu dute Artelatz enpresaren laguntzarekin, eta Lasarte-Oriako

Udalari aurkeztu. Ikasleen artean ordezkaritza batzuk izendatu dituzte, eta horiek arduratu dira lanaren nondik norakoak azaltzeaz, etxetik grabatutako bideoen bidez..

Datorren kurtsoan Eskola Agenda 30 programa sartuko da indarrean. Irailtik aurrera, ikasgeletatik edo etxetik, lehorreko ekosistemen inguruan lan egingo dute ikasleek, eta, zehatzago, basoen inguruan. Agenda 30ek hamazazpi helburu dituen egitasmo bat prestatu du, garapen iraunkorrera bidean.



Ikasle talde bat, Agenda 21 programako edukiak lantzen. LASARTE-ORIAKO UDALA



Kultur ikastaro ezberdinen artean, musika aukeretakoa bat da. Musika-tresnetan sakontzeko aukera eskaintzen da eskualdean

"Kultura ezin da geratu, oso garrantzitsua da"

Koronabirusak gizarte bitzita kolokan jarri badu ere, alor guztietan aurrera egin beharra dago. 2020-2021. ikasturteari begira dauden irakasle eta kultur gileen artean, Myriam Ulangak eskarmentu handia du.

Urnietan bizi, Andoainen lan egin eta Buruntzalde osoan aski ezaguna. Marka guztiak hautsi dituen Andoaingo Piano Jaialdiko buruetakoa da, eta urtero-urtero eskualde osoko pianojoleei jendaurrean aritzeko aukera ezin hobea eskaintzen diete. Irailari begira, bere hausnarketari erreparatzea interes handiko bihurtu da.

Zer da zuretzat musika irakasle izatea?

Lanbidea. Ikasketak oso gustura egin nituen, musikariok oso gogoko dugu musika egitea, kontzertuak eskaintzea eta musikaren bitartez entzulegoari zerbait helaraztea. Izan ere, musika hizkuntza bat da, hizkuntza unibertsala. Bizitzan aurrera egiteko eskolak emateko aukera sortu zitzaidan. Oso ondo ezagutzen dut Andoaingo Udala Musika Eskola, 36 urte egin ditudalako bertan lanean.

Lotura handia daukat nire ikasleekin, gauza asko ikasi ditut urte hauetan eta, horrekin

batera, irakasteko modua ere eraldatu egin da. Oso lan polita da, eta azkenerako ez da lan gisa hartzen. Nahiz eta irakasle izatea ez den batere lan erraza.

Zer behar da ikasten hasteko?

Gogoa ezinbestekoa da. Tresnaren bat jotzen hasten zaren egunetik musika sortzen ari zara, eta

horrek erakartzen du mundu honetan hastea. Tresna bakoitzak bere zailtasuna dauka, baina musika egiten hasten zaren unea zerbait berezia da.

Guztiok gogoko dugu musika, eta mundu honetan sartu nahi duenak gustuko musika-tresna aurkitu behar du. Musika

gozatzeko da, ondo pasa eta komunikatzeko.

Zeintzuk dira zuzendari baten ardura nagusiak?

Lehenik eta behin, musika eskola antolatu behar dut. Egun, gauden egoeran egin beharreko antolakuntza handiagoa eta konplexuagoa da; prebentzio eta segurtasun neurriak hartzea ezinbestekoa da guztion osasuna bermatzeko, beraz, datorren urtea konplexua izango da. Banakako klaseak eskaintzen ez dago arazorik; izan ere, ikasle bakoitzak musika-tresna izan ohi du etxean, eta online bitartez modu batera edo bestera eskain daiteke. Taldeka egin beharreko musika saioetan, berriz, egoera ez da batere erraza, tresna ezberdinak jotzen dituzten ikasleak elkartzen baitira. Hau guztia antolatzea oso zaila izango da.

Konfinamenduaz hitz egin dezagun. Zure alorretik nola joan da guztia?

Eskolak presentzialak izango ez zirela esan zigutenean etxean geratu ginen, baina horrek ez zuen esan nahi gure lana egingo ez genuenik. Hasiara batean, zer egin ez genekielako geratu ginen. Lehen pausoa ikasleekin harremanetan jartzea izan zen. Grabaketak egin eta bidaltzeko eskatu nien ikasleei. Hurrengo pausoa, bideo-deia izan zen. Modu horretan ikasleak musika-tresna nola jotzen zuten ikusteko aukera nuen, jarraipena egiteko modu errazagoa bilatu genuen. Hortik aurrera, ikasle guztiekin modu horretan komunikatzen hasi nintzen. Oso berezia izan da guztia. Era berean, azpimarratzeko da, konfinamenduaren ondorioz, ikasle askok gehiago ikasi dutela etxetik musika eskolan bertan baino.

Iraila eta urria begira, zer datorkizu burura?

Egoera oso berezia izango da niretzat. Alde batetik, zuzendaritza kargua hartuko dut irailaren lehen. Gainera, bizi dugun egoera honen aurrean guztia planifikatu beharra dago. Prebentziotik itxoiteko esan digute jakiteko abuztu bukaeran eta iraila hasieran nola dagoen pandemiaren egoera.

Egoeraren arabera hartuko diren neurriek baldintzatuko dute ikasturtearen planifikazioa. Egoera hau ez dugu inoiz bizi, eta, beraz, oso zaila da plangintza bat egitea. Iraila oso hilabete

Tailerrak eta ikastaroak udazkenean

Margoa, egur-taila, joskintza, musika... Eskualdeko udalen eskutik urte hauetan guztietan eskaintza oparoa garatu da. Euskarak pisu nabarmena du, gainera, ikastaroak hizkuntza ezagueraren arabera antolatzen baitira. Kasu gehienetan euskaraz eskaintzen dira ikastaroak. Kulturaren eta ezagupenen aldeko joera garrantzia handikoa da, baita bizi dugun garai zail hauetan ere.

Bereziki iraileen toki administratibotik luzatzen den eskaintzari adi egon beharko da. COVID-19ak eragindako krisiak den-dena baldintzatuko du, besteak beste, ikastaroen kokapena eta ikasle kopurua. Beraz, adi egotea komeni da. Garai zailak izan arren, ikastea beti izan ohi da aukera ona. Musika, dantza, joskintza, egur-taila..., aukera zabala dago Andoainen, Astigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian, Urnietan eta Usurbilen.

zaila izango da, lanaren eta kudeaketaren aldetik, batez ere. Ondo pentsatu beharko dugu guztia, guztion osasuna jokoan egon daitekeelako, baina ordura arte itxaron egin beharko dugu egoera zein den jakiteko.

Zein aholku emango zenieke haurrei eta gazteei musika munduan murgiltzeko?

Probatzeko esango nieke. Gogoko duten musika motaren arabera, tresna bat edo beste jotzen has daitezke. Probatzeagatik ez da ezer galtzen. Entzun eta ikusi nola jotzen duten bere adineko beste kideek. Ume guztiek ikasi beharko lukete musika, nik horrela pentsatzen dut. Musika ikasiz, sentsibilitatea garatzen duzu, kideekin harremanak gara ditzakezu, eta koordinaziorako oso ona da. Laburbilduz, oso baliagarria da musika bizitzarako.

Piano Jaialdiaren buruetako bat

Piano Jaialdirik antolatuko al duzue? Zein da aurreikuspena?

Printzipioz zerbait antolatu nahi dugu. Ez dakigu nola egingo dugun, izan ere, jende asko elkartzen baita. 700 partaidez hitz egiten ari gara, beraz, garbi dago planteamendua beste modu batera egin beharko dela. Geure asmoa otsaileko azken asteburuan egitea da, inauterik igaro ostean. Ezin da gauza handirik esan, egoera oso ziurgabea da, eta egoerara moldatu beharko dugu. Antolaketarako balorazio eta lan oso sakona egin beharko da.

Kultura ezin da geratu, oso garrantzitsua da. Kulturari ez zaio laguntza nahikorik ematen, baina kontraesankorra da, zeren eta, mundu guztiak kontsumitzen ditu filmak, musika, antzerkiak, liburuak eta abar. Musikarik gabe ezin gara bizi, hizkuntza unibertsala da, guztiok ulertzen dugu hizkuntza ezezaguna bada ere.



EUSKARAREN BIDETIK



izena eman udal ikastaro eta tailerretan



14.371 lasarte-oriatar zeuden botoa ematera deituta uztailaren 12an. Erdia baino apur bat gehiago joan da hauteslekuetara, abstentzioa %49,97koa izan baita. TXINTXARRI

EAJ garaile EAEn, eta EH Bildu bozkatuena herrian

EAJk irabazi ditu Eusko Jaurlaritzako hauteskundeak bozen %39,1 eta 31 eserleku lortuta. Hortaz, ezustekorik ez bada, Iñigo Urkullu izango da hirugarrenez lehendakaria. Lasarte-Orian, berriz, EH Bildu izan da alderdi bozkatuena; herri mailan aurrenekoz, lehen indarra izan da

Txintxarri


Botoa emateko eskubidea zuten 14.371 lasarte-oriatarrek, baina erdiak (%50,03) bakarrik erabaki du hautetsontzietan botoa uztea. Hauen kontaketa amaituta, EH Bildu izan da herrian gehien jaso dituen alderdia, 2.015 (%28,17). Jarraian, EAJk 1.904 (%26,61) eskuratu ditu eta PSE-EEk 1.821 (%25,45). Alegia, duela lau urteko ordena atzekoz aurrera jarri da, izan ere, 2016ko Eusko Jaurlaritzako hauteskundeetan PSE-EE izan baitzen bozkatuena, EAJ eta EH Bildu atzetik zituela. Elkarrekin Podemosek eta PPK errepikatu egin dute zerrendako tokia, baina bozak galduta.

**LASARTE-ORIAN
HAMAR PUNTU EGIN
DU BEHERA PARTE
HARTZEAK; EAE-N,
BERRIZ, ZORTZI**

Elkarrekin-Podemosek 643 ditu (%8,86) eta PPK 436 (%6,09). VOXek Ciudadanosen tokia hartu du, baina alderdi laranja aurrekoan lortutako botoen ia erdiarekin, 132 (%1,85), eta EQUO Berdeak-en alde egin dute 63 (%0,85) hauteslek. Halaber, beste alderdi txikiago batzuen alde ere bozkatu dute herritarrek (%0,11).

Adietuek egunotan ohartarazi dute COVID-19aren krisiak parte hartzean eragin zezakeela, eta, oro har, asmatu dute, beheko joeran, behintzat. Euskal Autonomia Erkidegoan zortzi puntu behera egin du; Lasarte-Orian, berriz, hamar, 2016an %60,21koa izan baitzen. Eguraldi kaskarrak, akaso, zeresanik izango zuen igande goizean.

Eguerdian erdialdeko hauteslekuetan giroa lasaia izan zen. Unearen arabera hautesle gehiago edo gutxiago zegoen eta edukiera mugak ilararen bat edo beste sorrarazi zuen, nahiz eta,



oro har, ez zuten luze itxaron behar izan. Hala izan zen Sasoeta-Zumaburu ikastetxean, hamabost lagunetara mugatu baitute sarrera edota udaletxean. Bertan, udalbatza aretoan tartea mantentzen zela ziurtatu zuen hautesleei oharrak eman zizkien gizon batek. Manuel Lekuona kultur etxeko barrutian, berriz,

mahai guztiak lehen solairuko kafetegian jarri zituzten eta beraiena zein zen ez zekitenek sortu zituzten pilaketa txikiak, ate inguruan. Egoera arintzeko, zalantzak argitu eta laguntzeko lana ahaldunetako batzuek hartu zuten zenbait unetan.

Botoa etxetik eramateko aholkua jarraitu ez zutenek,

gortinarik gabeko kabinetan hautatu behar izan zuten gutun azala betetzeko papera; denek erabiltzeko zena ahalik eta gutxien uki zedin, hidrogela hainbat tokitan eskuragarri egonda ere. Halako keinuek, musukoek, pantailak, eskularruek... Agerian utzi zuten testuingurua ezohikoa zela.

Lasarte-0



EH BILDU

"Emaizak oso positiboak iruditzen zazkigu, oso pozik gaude. Abstentzioa handia izan da eta parte hartzea asko jaitsi den arren, bai bozketan eta bai portzentajeetan gora egin duen alderdi bakarra izan gara. Aurrenekoz Lasarte-Orian lehen indarra izan gara, historikoa da hori eta poz handiz hartu dugu herrian bozka kopuru gehien dituen alderdia izatea. Proiektu sendo batekin aurkeztu gara, eta lasarte-oriatarrek positiboki erantzun dute. Gure aurreikuspenak gaitu ditugu".

"Hauteskunde eguna bera, pandemia honen erdian eta baldintza hauetan burutzeari ez diogu ez hanka ez buru ikusi, eta horrek parte hartzean eragina izan du".

"Maddalen Iriartek argi adierazi du herritarren beharrak lehenetsiko dituen proiektuak defendatzeko lider fina dela eta horregatik lortu du lortu duen babesa, eta baita ere duela lau urtetik hona emaitzak hobetzea".

Lasarte-Oriako Udaleko alderdi politikoek adierazpenak



EAJ-PNV

"Abstentzioa herrian handia izan da eta hori ez da ona. PSE-EEk eta Podemosek nabarmen egin dute behera eta EH Bilduk Podemosek galdutakoa hartu du. EAJri abstentzioak eragin dio, EAEn gertatu den modura, baina proportzioan, Lasarte-Orian igo egin gara eta herriko bigarren indarra izan gara, orain lau urte bezala".

"EAEko emaitzen inguruan egiten dugun irakurketa garrantzitsua da EAJk irabazi egin duela. Bizi izandakoaren ondoren, krisi sanitario baten ondorengo hauteskunde batzuetan, lurralde historiko bakoitzean jarleku bat gehiago geureganatzea zaila zen arren, lortu dugu. Herriarrek euren babesa eman diote azken lau urteetako lanari, eta beste lau urtez gobernatzeko konfiantza Urkulluri".

"Legebiltzarrean indar abertzaleek sekula izan dugun gehiengorik handiena lortu dugu".



PSE-EE

"Herriko emaitzak ikusita egiten dugun balorazioa gazi-goza da; herritarren parte hartze baxua dela-eta, %1eko igoera izan dugun arren, 260 bozka galdu ditugu, eta emaitzak ez dira onak izan".

"Herriko alderdi sozialistarentzat alderdi negatiboa %49,97ko abstentzioa izan da, eta nahiz eta badakigun pandemiak zifra horretan eragina izan duela, termino orokorretan oso kezagarria da. Lasarte-Oriatarren kopuru garrantzitsu batentzat hauteskunde autonomikoak oso urrun geratzen dira, eta hori konpondu behar dugu".

"EAEko emaitzek gaur-gaurko EAJ eta PSE-EE alderdien arteko koalizioa sendotzen dutela uste dugu".

"Kezagarria da gizartearen erdiak hauteskunde hauetan parte hartu ez izana, baina tamalgarriena, VOXek jasotako babesaren ondorioz, eserleku bat lortzea".



AHAL DUGU PODEMOS

"Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosek herrian lortutako emaitzak ez dira batere onak, ezta guk espero genituenak ere. Duela lau urteko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan lortu genituen botoen erdia eskuratu ditugu, eta hori oso kezagarria da. Hortaz, autokritika egitea ezinbestekoa izango da, baina uste dugu, alderdi barruko barne antolaketa sendo baten beharra baztertu gabe, bizi dugun egoerak bultzatutako abstentzioak ere eragina izan duela. EAEn Elkarrekin Podemosek izandako emaitzak ere ez genituen espero".

"Pandemiak eragindako beldurra medio, alderdi guztiek hausnarketa egin behar dugu, uste baitugu politikarekiko gaitzusteak sentitzen duela gizarteak, eta herritarrek konfiantza berreskuratzea gu guztion lana da".



NEURE KABUZ

MAIDER GALARDI

Ehuneko berrogeita hamar



Astebete da kasik Eusko Legebiltzarreko bozak egin direla. Emaitzak jakinak dira: EAJk irabazi du —botoetan galdu arren—, eta eserleketan gora egin du, gainera. PSErekin batzen bada, gehiengo absolutua izango dute, 1994tik aurrenekoz. EH Bildurena izan da gorakada nabarmenena —baita Lasarte-Orian ere—, eta 23.000 boto irabazita, 22 ordezkari izango ditu legebiltzarrean. Elkarrekin Podemosek eta PPK behera, eta Voxek sartu du muturra. Baina, albistea parte hartzea izan da. 7 puntutan egin du gora abstentzioak, eta Eusko Legebiltzarra denetik, inoizko parte hartze txikiena izan da. Lasarten, %50ekoa. Alegia, gutxienez herritarren erdiak ez duela bozkatu. Eta gutxienez diot, herrian bizi baina botoa emateko eskubiderik ez duten kideak baditugulako.

Egin nahi nuke analisi bat, zergatik jendea ez den hurbiltzen hautestontzietara, zergatik jendeak duen halako desatxikimendua. Baina bi egunetik behin jokaldiaren komentaria aritu ostean, nahiago beste norabide batean jarri arreta. Pandemiaren arrastoa oraindik gaineratik kendu ezin dugula eduki ditugu bozak, eta uda betean gaude. Hartu dute bozgorailua politikariek, baina politika ez dira instituzioak bakarrik. Pertsonala politikoa dela dio feminismoak, txikitik eragiten dela, eta alderantziz, txikian ere eragiten digutela erabakiek.

Horregatik, alderantzizko ariketa egin nahiko nuke zutabean. Kanpainan aipatu ez direnak zerrendatu, eta, ohartu, ez naizela kabitzen 2.500 karakteretan. Hitz egin nahi dut erraustegiaren martxaz, eraikitzeke prest duten Leroy Merlinaz. Hitz egin nahi dut herritarren parte hartze handiagora behar duen HAPOaz, herriko puntu beltzez. Langabezia gelditu direlako oportetara joan ezin daitezkeen familiez, oraindik koronabirusaren ondorioak arintzeko dirulaguntzak jaso ez dituzten horiez. Uda Saharan pasatu beharko duten haurrez eta gure adinekoak zaintzen aritu diren langileen baldintza kaxkarrez. Jakin nahi nuke ea zer moduz pasatu duen gure bizilagun marokorrek Ramadama pandemiak iraun bitartean, ala zuen amona zaintzen duen peruarrak lortu al duen itzultzea etxera. Urtarrilaren 30ean greba egitera irten ginenok jasotako isunaz aritu nahi dut. Hitz egin nahi dut gazteok etxebizitza bilatzeko ditugun arazoak, Lasarteko alokairu estratosferikoetat. Eta Sorgin Jaiek emandako lezioak; osasuna eta komunitatea zaindu bai, baina agindu diziplinatzaileak desobedituz.

Segitu nahi dut hizketan, horri buruz, eta gauza gehiagoz. Ertzean gelditu denaz, eta nire begien bistara ere ailegatzeko ez denaz. Baina iritsi naiz karaktere kopurura, eta ohartu naiz hauteskudeei buruz hitz egin nahi ez banuen ere, beharbada hemen azaldu zaidala botoa ematera joan ez zen %50 hori: paperik ez duena, dirulaguntzen zain politikariek haserre dagoena, deskontentua duen gaztea, zaharren egoitzan dagoen adinekoarena, HAPOan, Leroy Merlinean eta erraustegian Eusko Jaurlaritzak zeresana duela ez dakienarena, osasun arazoak dituen...

Gurean baditugu politikariak inurri lanean, eta saria jaso dute igandean. Orain urrunago begiratzea tokatzen da: ertzerago eta ertzerago. Haien ahotsak erdigunea har dezan.



Atletismoko txokoek harrera ederra izan dute

Ostadar SKTko Atletismo sailak antolatutako Atletismo Txokoetan 28 gaztetxok eman dute izena. Ariketak eta teoria uztartzen dituzte. Maila federatuan, berriz, Naroa Furundarenak irailan emango dio hasiera kanpoko denboraldiari, Espainiako Txapelketan

Nerea Eizagirre

Ezohikoa den uda honetan, 8 eta 14 urte arteko gaztetxoei atletismoa ezagutu eta kirol horretaz gozatzeko aukera eman die Ostadar SKTko Atletismo sailak txoko bidez. Kirol elkarteak txoko horiek antolatzen dituen lehen urtea da eta ataleko arduradunak pozarren daude izandako harrerarekin.

"28 gaztetxok eman dute izena eta pozik gaude. Ez genituen hainbeste espero", onartu du Amaia Andres Ostadar SKTko prestatzaileak. 2019-2020 ikasturteko Eskola kirola ekimena bertan behera geratu ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiak atletismo klubei udan saioak emateko baimena eskaini zien eta hortik sortu zen Lasarte-Orian Atletismo Txokoak egiteko ideia.

"Gipuzkoako Foru Aldundiak saioak egiteko baimena eman zigun. Beste talde batzuk, hala nola, Real Sociedad edo BAT, prest zeuden horrelako ekimena aurrera eramateko eta guk ere proba egin beharko genuela pentsatu genuen", azaldu du atleta ohiak.

Orokorrean, urtean zehar, taldean atletismoa egin duten haurrek eta gazteek izena eman dute txokoetan, baina bada



Atletismo Txokoetako gaztetxoak eta Amaia Andres, Ostadar SKTko prestatzailea. TXINTXARRI

atletismoan inoiz aritu ez den haurrik ere. "Atletismoa ezagutzeko aukera bat da eskaini duguna. Urtean zehar, gurekin lanean egon diren haur eta gaztetxo ugari dago saioetan, baita beste kirol batzuetatik datozenak ere", nabarmendu du Andresek.

Saio egokituak

Astelehen, asteazken eta ostegunetan, bi taldetan banatuta, ordu beteko saioak egiten dituzte gaztetxoek atletismo pistan. Gehienak hilabetez egongo dira lanean eta gutxi batzuek hilabete erdia egingo dute, Ostadar SKTko

atletismo arduradunak azaldutakoaren arabera. "Bi talde ditugu bata 8 eta 10 urte bitartekoena eta bestea, 12 eta 14 urte bitartekoena. Bigarren hamabostaldian berriren bat izango dugu, bigarren taldean, baina zortea izan dugu eta taldeak nahiko orekatuak dira".

Adinari egokitutako ariketak egiten dituzte. Txikiekin beroketak, psikomotrizitate lanak eta jokoak egiten dituzte; zaharrenekin, berriz, beroketak eta ariketa teknikoagoak.

"Ez du askorako ematen baina urtean zehar, entrenamenduen eritmoarengatik landu ezin

Hotel Viura saria, zaldi lasterketei jarraipena emateko

Hamabost bat egunez egon da denboraldia etenda. Segurtasun eta osasun neurriak mantentzen dira

Txintxarri

Bi asteko etenaren ostean, udako denboraldiari jarraipena emango dio Hipodromoak igandean. Zazpigarren jardunaldia jokatu da 17:30etik aurrera eta bost lasterketa ikusteko aukera izango

dute zaleek. Sari nagusia Hotel Viura izango da. Aurretik FEE, Onda Cero, Asenel eta Araeta sagardotegia sariak izango dira, hurrenez hurren.

Zaldi hasiberrietatik eskarmentu handikoetara

lehiatuko dira Hipodromoko zelaian lasterketa ezberdinetan.

Egun hauetan osasun eta segurtasun neurri berririk ezarri ez denez, Hipodromoak indarrean dauden jarraibideak bete behar ditu. Horrenbestez, edukiera mugatua izango da eta hurbiltzen diren zaleek ezarritako protokoloa jarraitu beharko dute. Sarrerak leihatilan erosi beharko dituzte. Maskara janztea derrigorrezkoa da. Jardunaldiak iraun bitartean ezin da eserlekuetatik altxa, ezta apusturik egitera ere.

Mendi festako inskripzioa, martxan

Lasarte-Oria Trail kirol elkarteak II. Mendi Festaren antolakuntzarekin aurrera darrai. Ondo bidean irailaren 27an egingo da proba eta guztia prest izateko pausoak ematen ari da elkarteak.

Uztaila hastearrekin bat izena emateko epea ireki zen Kirolprobak orrialdean eta irailaren 26ra arte egongo da aukera inskripzioa egiteko. Iraila baino lehen egiten dutenek, gainera, 5 euro aurreztuko dituzte.

Aurten zailtasun ezberdinetako hiru ibilbide egin ahalko dira: luzea (28,5 km. eta 1400+), motza (13,5 km. eta 600+) eta Tipi-Ttapa (8 km. eta adin guztietako pertsonak egiteko modukoa).

Probari buruzko informazio gehiago Lasarte-Oria Trail elkartearen webgunean, Facebook orrialdean edo Kirolprobak orrialdean eskuratu daiteke.



Mendi festako irudia. TXINTXARRI

ditugun arlo batzuk lantzen ditugu", azaldu du Andresek.

Gainera, alde teorikoa ere lantzen dute. "Gai teknikoak edo munduko errekorrak zeintzuk diren azaltzen dizkiet. Esate baterako, pertikako munduko errekorra sei metro baino gehiagokoa dela aipatu diet txikiei eta aho zabalik begiratu didate, norbaitek hori saltatzen duela jakitean".

Izan ere, gaztetxoei atletismoaren harra sartzea ere bada helburuetako bat. "Ikasturtea hastean taldean izena ematen badute, primerakoa izango litzateke, baina zaila da aukera asko dituzte", onartu du prestatzaileak.

Kanpoko denboraldia

Goizetan, gazteek atletismoaz gozaten dute modu ludikoan;

arratsaldeetan, berriz, egoera aldatzen da. Maila federatuetako atletak lan eta lan ari baitira irail hasieran hasiko den kanpoko denboraldia prestatzen.


"Espainiako txapelketa izango da lehen lehiaketa. Irailaren lehen asteburuan izango da eta Naroa Furundarena lehiatuko da jauzi hirukoitzean", azaldu du atletismo saileko arduradunak.

Azken hiru hilabete hauetan, egoeraren arabera, entrenamenduak moldatu dituzte. Lehenik, etxean, eta, udalak baimena eman ostean, Michelin kirol guneko pistan. Ostadar SKTko atletek ez dute etenik izan.

"Zortea izan dugu. Atletismoa bakarkako kirola da eta beste kirolek baino erraztasun gehiago izan ditugu entrenamenduekin hasteko", onartu du Andresek.



Maila ezberdinetako lasterketak ikusiko dira igandeko jardunaldian. TXINTXARRI



2019ko azaroan aurkeztu zuten proiektu irabazlea Txus Alonso Kirol zinegotziak eta Agustin Valdivia alkateak. L-O UDALA

Exekuzio-proiektuaren idazketa berriz lizitatzera

Arkitektoen Elkargoak errekurtsu berezia jarri du egitasmoaren baldintza-agirien aurka, eta aldeko epaia eman du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak. Udalak jakinarazi du horrek ez duela geratu lizitazio prozesua, eta "oinarrizko proiektua esku artean" daukala

Txintxarri

"Helburua da Lasarte-Oriak horrenbeste behar duen kiroldegi berriaren proiektua behar baino gehiago ez atzeratzea". Lasarte-Oriako Udalak ohar bidez jakinarazi du egitasmo horren exekuzio-proiektuaren idazketa geldirik dagoela gaur egun eta berriz lizitatu beharko dela, EAEAN Euskal Autonomia

Erkidegoko Auzitegi Nagusiak aldeko epaia eman duelako Arkitektoen Elkargoak jarritako errekurtsu baten inguruan. "Elkargoak ez du eskatu proiektua kautelaz eteteko, eta lizitazio prozesua ez da geratu, exekuzio-proiektuaren idazketari eragiten dio soilik. Oinarrizko proiektua esku artean daukagu", jakinarazi du.

Uztailaren 9ko ohiko udalbatzar saioan atera zuen gaia EH Bilduk, galdera eta erreguen txandan, Udal Gobernuari kontu horri buruzko zenbait itaun eginenez. Agustin Valdivia alkateak erantzun zuen esanez astelehen arratsaldean, uztailaren 13an, bozeramaileen batzar bat deituta zegoela "beharrezko azalpen guztiak" emateko. Asteazkenean

jaso du udalaren prentsa oharra erredakzioan TXINTXARRI aldizkariak, uztailak 15.

Lizitazio prozesua

Udalak azaldu du bi fasetan bideratu zuela kiroldegi berriaren proiektua kontratatzeko lizitazioaren prozesua. Lehen fasean "aurkeztutako proposamenen alderdi teknikoak baizik" ez ziren baloratu, eta guztien anonimotasuna bermatu zen. "Lehiaketako bost irabazleak izendatu ziren, eta guztiak zuten irabazle gisa saria edo accesita kobratzeko eskubidea. Bost hautagaitza horiek, ordura arte anonimoak zirenak, bigarren fasera igaro ziren". Bestela esanda, proiektua idazteko zerbitzu-kontratua adjudikatzekeo fasera. Udalak esan duenez, kontratuaren prezioak adjudikazioko irizpideen %20 osatzen zuen fase horretan.

Arkitektoen Elkargoak errekurtsu berezia jarri zuen baldintza-agirien aurka, eta orduko horretan udalaren aldeko epaia eman zuen KEAO Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak, prozedura bi fasetan banatzeak legezotasuna betetzen zuela iritzita. Epaia horrekin konforme ez, eta elkargoak auzi-errekurtsua jarri zion KEAOn erabaki horri. Orduko horretan, EAEANk elkargoaren aldeko epaia eman zuen, eta prozedura baliogabetu, arrazoi hauek emanez: lehiaketaren kasuan anonimotasuna bermatu behar dela fase guztietan, eta prezioa ez dela kontuan hartu behar baloratua izateko irizpide gisa.

"EAEANren epaiari men egiten badio ere, udalaren iritziz egokiagoa da KEAOn epaia, proiektuaren lehiaketaren fasea

zena haren bost irabazleak izendatzearekin eta sariak ematearekin amaitzen baitzen", adierazi du udalak. Azaldu du prozeduraren bigarren faseak kiroldegiaren proiektua idazteko zerbitzu-kontratua adjudikatzean zetzala. "Udalaren iritziz, ez da nahikoa fase horiek guztiak 'proiektuaren lehiaketa' izeneko agiri bakarrean egotea baldintza guztiak prozeduraren bigarren fasera hedatzeko, hau da, zerbitzu-kontratuaren adjudikaziora".

Udalak azpimarratu du prezioa ez dela "erabakigarria" izan kontratua adjudikatzerakoan: "Epaia hain ongien baloratutako proposamena izan da puntuazio orokor handiena lortu duena". Zehaztu du "agerikoa" dela udalak "fedonez" jokatu duela prozesuan zehar eta pleguak legezkoak direla, EAEANk ez duelako udala kondenatu prozesuaren kostuak pagatzera.

2019ko azaro amaieran iragarri zuen udalak *Oriaren Gainean* proiektua izan zela irabazlea, Sabai Arkitektoak enpresak aurkeztutakoa. *Beirazko Pasabidea* izenekoa izan zen beste finalista.

UDALAK BI FASETAN BANATU DU PROIEKTUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOAREN PROZESUA

'ORIANEN GAINEAN' IZENA DU PROIEKTU IRABAZLEAK; SABAI ARKITEKTOAK-EK AURKEZTUTAKOAK

Geldialdi teknikorik ez uda honetan

Lasarte-Oriako Udalarenak diren instalazioak ez dira itxita egongo udan zehar, aurrean ez baitute geldialdi teknikorik egingo azpiegituren mantenerako. "Pandemiaren ondorioz instalazioak jendearentzat itxita egon diren bitartean, Udaleko Kirol Zerbitzuko langileek geldialdi teknikoetan egiten diren lanak aurreratu dituzte: igerilekuko instalazioak hustu, garbitu eta desinfektatzea, baita legionella prebenitzeko protokoloari dagozkionak ere", azaldu du udalak.

Hori kontuan hartuta, uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitarteko ordutegien berri eman du udalak. Kiroldegia 07:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 22:00etara irekiko dute, eta 09:00etatik 14:00etara larunbat eta igandeetan. Igerilekuaren ordutegia, berriz, hau izango da: 07:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 21:30era astegunetan, eta 09:00etatik 14:00etara asteburuan.

Michelin kirol-gunea 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 22:00etara

zabalduko dute astelehenetik ostiralera, eta 09:00etatik 13:00era larunbat goizetan, eta arratsaldeetan itxi. Igandeetan itxi egingo dituzte instalazio horiek.

Maialen Chourraut kiroldegiko instalazioak erabiltzeko beharrezkoa da aurrez hitzordua hartzea, 943 376 182 telefonora hots eginda. Erabiltzaileek etxetik eraman beharko dituzte maskara, toaila eta kirola egiteko arropa. Makina bakoitza erabili ondotik desinfektatu egin beharko dute. Ekainaren 8tik daude zabalik udal kiroldegiko zenbait gune.



Maialen Chourraut kiroldegia. TXINTXARRI

Jardunaldiz jardunaldi, puntuak batzen

Donostia Arraun lagunak eskifaiak bigarren eta hirugarren postuak eskuratu ditu asteburuan. Gaizka Ormazabal herritarrek Hibaika Susperregi arraun taldean KAE2 mailako denboraldiari hasiera eman dio asteburu berean, Pasai Donibanen

Txintxarri

Euskotren Ligako traineruak Donostian eta Zierbenan lehiatu dira asteburuan. Orio eta Donostiarrak eraman zituzten banderak. Donostia Arraun Lagunak taldeak lehia bizia izan zuen bi jardunaldietan eta sailkapenerako baliagarriak diren puntuak eskuratu zituen Aiora Belartietara herritarra kide duen eskifaiak.

Larunbatean Donostiako Kontxan izan zuten lehen saioa. Oriok aurrea hartu zuen Badiatik atera zirenean eta bigarren postua lortzeko lehia izan zen Donostiako bi traineruen artean. Donostiarra taldeak, ordea, ez zuen ziaboga ongi egin eta Arraun Lagunak aurre hartu zion. Itzulian, Orio harrapatzen saiatu ziren, 3 segundora egon ziren, baina ezin izan zuten aurre hartu.

Donostiarra eta Hondarribi Bertako Igogailuak eskifaiak izan ziren hirugarren eta laugarren, hurrenez hurren.

Igandean, berriz, hirugarren postuarengatik lehiatu ziren Belartietara eta bere kideak. Honetan Hondarribi Bertako Igogailuak izan zen arerioa.

Ziabogan azken postuan iritsi arren, itzulian Donostia Arraun Lagunak eskifaiak Hondarribi Bertako Igogailuak aurreratu



Donostia Arraun Lagunak, Caixabank banderan. AITOR ARRIZABALAGA

zuen eta hirugarren postua eskuratu zuen.

Puntu hauei esker, Donostia Arraun Lagunak-ek sailkapeneko azken postua utzi du eta Hondarribi Bertako Igogailuak berinduta dago, zazpi punturekin. Lehen postuetan, berriz, Orio (15 pt.) eta Donostiarra (11 pt.) daude.

AKE2, denboraldi hasiera

Eusko Label eta Euskotren Ligako arraunlariak ez dira bakarrik lehiatu hasi direnak; uztailaren 11an, AKE eta ETE mailako denboraldiari hasiera eman zitzaion Pasai Donibanen. Bertan AKE2 mailako Hondarribiako arrantzaleen kofradiako bandera lehiatu zen

eta herritar bat izan zen Hibaika Susperregi eskifaian, Gaizka Ormazabal.

Erlojupeko lehia izan zuten maila honetako hamaika traineruak eta bederatzigarren postuan iritsi zen Errenteriako eskifaia. Lapurdik irabazi zuen bandera.

Gipuzkoako txapelketa

Asteazkenean, berriz, Gipuzkoako txapelketa lehiatu zuten bi herritarrek Orioko uretan. Donostia Arraun Lagunak hirugarren izan zen; Hibaika Susperregi, berriz, hamaikagarren amaitu zuen proba. Orio eta Hondarribi izan ziren garaile.



Texas Lasartearra, 2019 urteko Donosti Cupeko partida jokatzeko. TXINTXARRI

Donostia Cupek ez du herri txapelketarik antolatuko

Ostadar SKT eta Texas Lasartearra elkarteetako hainbat taldek izena eman zuten lehiaketan parte hartzeko

Txintxarri

Lasarte-Oriako futbol taldeek ezingo dute Donostia Cupen parte hartu. Txapelketak herri arteko lehia antolatzeko asmoa zuen. Azken asteetako COVID-19aren agerraldiek eta agintarien neurriek eraginda, lehiaketa hori ere ez egitea erabaki dute antolatzaileek. "Parte-hartzaile guztien segurtasuna bermatzeko baldintzak betetzen ez direla iritzita, Donosti Cup Erakundearen Batzorde Antolatzaileak erabaki zail hau hartu du", adierazi dute.

Antolatzaileek txapelketaren izpiritua mantentzeko ahalegina egin dute hilabete hauetan. Maiatzean bere ohiko formatuan jokatu ez zela jakitera eman zuten. Nazioarteko talderik ez zen egongo, Donostia Cup birtuala antolatu eta herri mailako txapelketa batean lanean ari zirela aurreratu zuten.

Duela hiru aste Gipuzkoako taldeei jakinarazi zitzaie txapelketan izena emateko aukera zutela eta 160 taldek baino gehiagok erantzun zioten deialdiari. Horien artean, Texas Lasartearra eta Ostadar SKTk.

Entrenamenduak bertan behera

Talde batzuk txapelketa prestatze aldera hasi ziren lanean, herriko Texas Lasartearra, esate baterako. "Aurreko asteetan Donostia Cup jokatu zuten taldeek bakarrik egin dituzte saioak. Txapelketa bertan behera geratu denez, guk ere

entrenamenduak etengo ditugu", azaldu dute Texas Lasartearrako kideek.

Ostadar SKTk ere bi talde lanean hasia aurreikusitako, baina antolatzaileek hartutako erabakia ostean, entrenamenduak bertan behera utzi dituzte.

Hala ere, hurrengo denboraldiari begira, infantil-txiki taldea osatzeko Ostadarrek hiru saio egin zituen lehengo astean.

Ligako egutegiak

Bestalde, 2020-2021 denboraldiko egutegia onartu zuen asteazkenean Espainiako Futbol Federazioko Batzordeak.

Ondo bidean, irailaren 5ean jokatu da Iberdrola Ligaren lehen jardunaldia eta 2021eko ekainaren 20an amaituko da denboraldia.

Denboraldi berri horretan, ligak 34 jardunaldi izango ditu. COVID-19a dela eta, ez da jaitzierarik izan eta hemezortzi talde izango dira lehiatu, aurreko denboraldian baino bi talde gehiago: Eibar eta Santa Teresa.

Era honetara, Iraia Iparragirre eta Real Sociedad taldeko kideek, besteak beste, bi euskal talderen aurka jokatu dute, Athletic eta Eibarren kontra.

Reto Iberdrola ligako hasiera, berriz, irailaren 27an izango da. Javi Solchaga herritarrek zuzentzen duen Añorga KKEk maila horretan lehiatzea du amets. Horretarako, UD Aldai CF garaitu beharko du, uztailaren 25an.

Irailera arte, jarraipenik ez

LOKE eta ATG elkarteko kideak saiatu arren, Xabier Gonzalez Oroimenezkoa ezingo da uda baino lehen jokatu. Urtarrilean hasi zen oroimenezkoa eta, pandemia dela eta, martxoan azken faseetako partidak falta zirela eten zen. "Normaltasun berrira" iristean lehiarekin jarraitzeko asmoz zuten antolatzaileek, baina ez da posible izan. Dena ondo bidean, irailan jokatzeko espero dute.



TXINTXARRI

KOMIKIA



ZORION AGURRAK




Naiara
Zorionak Naiara. Gozatu zure egunaz. Asko maite zaitugu! Zure gurasoen eta familiaren partetik. Muxu erraldoi bat Burrubetxetel!




Alex
Zorionak! Urte askuan Alex! 25 muxu goxo. Ondo ospatu eta pote bat zor diguzu!

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 17




Larunbata, 18




Igandea, 19




Astelehena, 20




Asteartea, 21



Asteazkena, 22



Osteguna, 23



JAIOTAKOAK

Irai Calvo Rubio. Uztailaren 13an.
Adur Sebastian Robles. Uztailaren 13an.
Grace Gamez Hoyes. Uztailaren 9an.

HILDAKOAK

Juana Yarza Eizaguirre. Uztailaren 13an.
Jone Altuna Garmendia. Uztailaren 12an.
Natividad Otaegui Elicegui. Uztailaren 9an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 17 URBISTONDO
LARUNBATA, 18 GIL
IGANDEA, 19 GIL
ASTELEHENA, 20 DE ORUE
ASTEARTEA, 21 ACHA-ORBEA
AZTEAZKENA, 22 URBISTONDO
OSTEGUNA, 23 GANDARIAS-URIBE

EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDUEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Liburuen bigarren eskuko azoka, Oriarte BHI

Oriarte Institutuko Oriartekide guraso elkarteak, familiek 2020-2021 ikasturteko liburuak erosi ahal izateko DBH3 mailatik 2. Batxilergo mailarako liburuen bigarren eskuko azoka antolatu du, Oriarte institutoko Larrekoetxe eraikinean.

DBH3, DBH4 eta 1. Batxilergo mailatako liburuak uztailaren leian eskuratu ahal izan eta gero; 2. Batxilergoko liburuak, gaur, uztailaren 17a, 16:00etatik 17:30era erosteko aukera izango dute hurrengo ikasturtean maila hori egin behar duten ikasleen familiek.

Eskuratu 1.000 euro

Aterpea merkatarien elkarteak abiatu du aurtengo Eskuratu 1.000 euro! kanpainaren edizio berria. Orain arteko kanpainetan 1.000 euroko saria zozkatu dute, baina oraingo honetan, 3.000 euro banatuko dituzte 1.000, 500 eta 250 euroko erosketa-bonuetan. Zozketan parte hartzeko, bezeroek uztailaren 6tik 18ra kontsumitu beharko dute kanpainara atxiki diren establezimenduetan. Parte hartze data horiek pasata, zozketa uztailaren 22an egingo dutela iragarri dute: Villa Mirentxun. 1.000 euroko sariaren irabazleak 10 euroko 100 bonu jasoko ditu, baina zenbait baldintza bete beharko ditu horiek gastatu ahal izateko; Aterpeko dendetan gastatu beharko ditu, uztailaren 29an, eta 17:00etatik 20:00etara. Jakinarazi dute baita ere, ezingo dituela 10 bonu baino gehiago erabili establezimendu berean.

SUDOKUA

5	6			9			
		7			6	4	5
	2	9		1			8 6
	9		4			2	
		8	9	6	5	3	
4		5			7		1 9
	7	3	8			5	
8	5			7	3		6
			6				7 3

ESKELA

OROIGARRIA



JULIANA YARZA EIZAGUIRRE



'Goian bego'
2020ko uztailaren 13an hil zen, 85 urte zituela.

Besarkada bat familiari,
Ttakun Kultur Elkartearen partetik

TTAKUN KULTUR ELKARTEA

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA

Lasarte-Oriako bi neska gazte gara; udaran haurrak zaintzeko prest gaude. Hurrek udaran eskolako errefortzu lanak egin nahi balituzkete ere prest egongo ginazkete laguntzeko. Deitu edo bidali whatsapp bat zenbaki hauetara: 688 777 280 edo 610 325 280.

Lan bila ari naiz Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila asteburuetarako Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

27 urteko neska euskalduna abuztuan haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Haur Hezkuntzan graduatua. Interesatuak deitu telefono honetara: 695 757 287.

Haurrak zainduko nituzke, irailetik aurrera, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN

Udarako hilabeteetarako etxea alokatzen da,

Punta Umbrian, Huelvan. Bigerileku eta padel pista ditu. Garajea barne. 943 376 115/615 645 126.

Etxea partekatzen neska baten bila gabiltza. Interesatuak jarri nirekin harremanetan, 666 320 520. (Nekane).

Etxea behar da lasarten bizi dan familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zenbakia, 661 39 62 99.

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazua +

paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa

opari. Dena 300 euro. 646 824 466.

EROSI

Bigarren eskuko ondo dagoen bizikleta hartuko

nuke 3-4 urteko ume batentzat. 687 35 50 95.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

txintxarri


Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

jarraitu herriko albisteak sarean



www.txintxarri.eus

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Igone Mendizabal
eta Uxue Odriozola.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Dantza ikuskizuna. Ikuspegi berriztatua eskaintzen duen euskal dantzen obra berria da *Ikonografiak*. Lengoaiaren poetikara gerturatzeko gaitu, ni-aren gizabanakoaren kodean guaren kolektiboarekin konektatzen duen izaki bizidun gisa. **Ostirala 17. Andatza plaza, 19:00etan.**

OSTIRALA 17

LASARTE-ORIA Dantza ikuskizuna
Ikonografiak dantza ikuskizuna Kresala dantza taldearen eskutik. XVI. Dantza Zirkuituko emanaldia da, mundu tradizionalaren ikuspegi berriztatua eskaintzen duen dantza obra berria. **Andatza plaza, 19:00etan.**

USURBIL Kultur Bira
Skratx antzezlan.

Alanoenea plaza, 19:00etan.

USURBIL Kultur Bira

Malen eta Maddi kontzertuan.

Aginagako eliza Zaharrean, 20:00etan.

LARUNBATA 18

HERNANI Haur-antzerkia

Markeliñe konpainiak *Crusoe* antzerkia eskainiko du. 6 urte baino gehiagoko haurrei zuzendutako lana da. Gonbidapena behar da. Biteri kultur etxean eskuratu behar dira txartelak, 09:00etatik 14:00etara. **Atsegindegi plaza, 19:00etan.**

ANDOAIN Dantza

Haatik dantza konpainiak *Errimak bi oinetan* ikuskizuna eskainiko du. Gonbidapena behar da. Bastero

kuturguneari eskuratu ahalko dira gonbidapenak emanaldia hasi baino bi ordu lehen.

Ondarreta ikastetxe patioan, **19:30etan.**

USURBIL Kultur Bira

Aldatzen Laguntzen antzerki taldea *Birritan bortxatua* antzezlan eskainiko du. Ostean, Jurgi Ekizaren emanaldia izango dira. **Udarregi ikastolan, 20:00etan.**

ASTIGARRAGA Sagar Kultur

Izaki Gardenak taldeak emanaldia eskainiko du. Sarrerak: adin txikikoei 3 euro eta helduei 6 euro. **Astarbe sagardotegian, 22:30etan.**

IGANDEA 19

ANDOAIN Haur-antzerkia

Markeliñe konpainiak *Crusoe* antzerkia eskainiko du. 6 urte baino gehiagoko haurrei zuzendutako lana da. Gonbidapena behar da. Bastero kuturguneari eskuratu ahalko dira gonbidapenak emanaldia hasi baino bi ordu lehen. **Ondarreta ikastetxean, 18:30etan.**

ASTIGARRAGA Sagar Kultur

Arranbal taldeak kontzertua eskainiko du. Sarrerak: adin txikikoei 3 euro eta helduei 6 euro.

Astarbe sagardotegian, 15:30etan.

ASTEAZKENA 22

LASARTE-ORIA Zinema

Amazing Grace dokumentala eskainiko dute, Okendo Zinema taldearen eskutik. 1972an, Aretha Franklin abesleak gospel kontzertua eskaini zuen bi egunez jarraian Wattseko eliza batean. Kontzertu horretan *Amazing Grace* abesti eta diska ezaguna grabatu zuen. Euria egingo balu, ez litzateke

proiektziorik egongo. Maskara janztea derrigorrezkoa da. **Okendo plaza, 22:15ean.**

OSTIRALA 24

LASARTE-ORIA Haur ikuskizuna

'Piraten istorio bat' Keinuen bidezko ikuskizuna, arina, dibertigarria eta familiar gozatzekoa. *Itsaso zakarraren gorabeherak, gauaren magia eta adiskidetasunaren potereaz ohartuko dira ikusle txikiak bidai honetan.* **Andatza plaza, 19:00etan.**



LASARTE-ORIA Zinema. *Amazing Grace* dokumentala eskainiko dute, Okendo Zinema taldearen eskutik. 1972an, Aretha Franklin abesleak gospel kontzertua eskaini zuen bi egunez jarraian Wattseko eliza batean. Kontzertu horretan *Amazing Grace* abesti eta diska ezaguna grabatu zuen. **Asteazkena 22. Okendo plaza, 22:00etan.**

Santa Ana parodiarako sarrerak eskatzeko azken eguna uztailaren 20a izango da, astelehena

Txintxarri

Ezohikoa izango da aurtengo Santa Ana parodia. COVID-19aren ondorioz, aldaketa batzuk egingo dituzte antolatzaileek. Emanaldia Manuel Lekuona kultur etxe auditorioan izango da, uztailaren 26an, igandez, 22:00etatik aurrera. Edukiera mugatua izango denez -200 pertsona gehienez, eta eserita-herritarrek aurrez eskatu beharko dituzte sarrerak: WhatsApp mezu bat bidali

beharko dute 695 785 389 telefonora edo mezu bat idatzi kultura@ttakun.eus helbidera. Eskaerak egiteko azken eguna uztailaren 20a izango da, datorren asteko astelehena. Pertsonako bi sarrera eskatu daitezke, ez gehiago.

Behin eskaera guztiak bilduta, eta 200 baino gehiago badira, zozketatu egingo dira sarrerak eskatzaile guztien artean. Uztailaren 22an jakingo dute irabazleek parodiara joateko

sarrerak lortu dituzten edo ez. Manuel Lekuona kultur etxera joan beharko dute sarrerak jasotzera uztailaren 23an, ostegunarekin, arratsaldeko lauetatik seietara.

Formatu berezikoa izango da aurtengo parodia: antzezle gehienak bidez grabatutako esketzak prestatzen ari dira. Horiek uztartuko dituzte kultur etxean zuzenean egingo diren pasarte batzuekin, antzezle batzuk bertan egongo baitira.



lazko parodiako esketz bat. TXINTXARRI



Abestu, dantzatu eta gozatu zuten Tio Teronen semeek Okendo plazan egin zen hileta berezian. TXINTXARRI



'Festamentua' ikuskizunak aho zabalik utzi zituen herritarrek. TXINTXARRI

Kultur ekintzei esker, udan aspertzerik ez

Tio Teronen semeek eta Alboka Abesbatzak herritarren gustuko emanaldiak eskaini dituzte azken egunetan. Nahiz eta COVID-19aren pandemiarengatik jairik ez ospatu, Oriako auzotarrek euren zaindari den Karmengo Amaren ohorezko meza egin dute

Txintxarri

Atzo Karmengo Amaren eguna izan zen, uztaialak 16, oriatarren zaindariarena. Nahiz eta auzo elkarteko kideek ospakizunik ez antolatu, oriatarrek Karmengo Amari goratarre egin nahi izan zioten bere izena daraman kapera meza egin.

Ez da hau Lasarte-Oriara uda giroa ekarri duen ekimen bakarra izan. Uztaileko kultura ekitaldiek herria bizirik mantentzen dute.

Uztaialaren 9an, ostegunarekin, Tio Teronen Semeak taldeak *Festamentua* plazaratu zuen Okendo plazan. Ikus-entzuleentzat jarritako 200 aulkietako bakar bat ere ez da hutsik geratu, eta perimetrea markatzeko hesietan ere herritar ugari jarraitu zuten emanaldia.

Dantza, umorea eta musika uztartzen dituen ikuskizun dinamikoak zur eta lur utzi zituen lasarte-oriatarrak. Bukaerako txaloak izan dira horren seinale. Hileta bainoago, festa ederra izan da. Lanaren izenburuak

hori iradoki zezakeen, baina emanaldia ezagutzen ez zutenek nekez imajina zezaketen gainera etorri zaien emozio erauntsia.

Bart, Gag Street Boys bikotearen lana ikusi ahal izan zen Andatza plazan. Segurtasun neurriak bermatze aldera, Udalak kale ikuskizunak Okendo plazatik Andatza plazara lekuz aldatzea erabaki du, uztaile amaierara arte.

Ikasturteari agur

Uztaialaren 11n, aurreikusitakoa baino hilabete geroago, Alboka Abesbatzak agur esan dio aurtengo ikasturteari San Pedro parrokian egindako kontzertuarekin.

COVID-19ak ezohiko hilabeteak ekarri ditu eta azken saio honetan ere agerikoa izan da koronabirusaren eragina. Izan ere, abeslariak musukoa edo pantaila jarrita kantatu baitute prestatutako errepertorioa. Edonola, ohi bezain ondo entzun dira haien ahotsak. Babesik gabeko bakarra Montse Latorre

zuzendaria izan da, bere jardunerako hala behar baitzuen.

Herritarrek ere ezarritako segurtasun neurriak errespetatu dituzte. Edukiera mugatu dute, bankuetan eserita zeudenen artean tarreak adierazi, eta maskara jartzea ezinbesteko baldintza egin. Horiek guztiak bete dituzte musikazaleek. Agustin Valdivia alkateak eta bere taldeko zenbait zinegotzik ere ez dute hutsik egin.

Larrialdi egoerak eragindako itxialdian lanean jarraitu badute ere, normaltasun berriko hilabetean atondu dute abesbatzako kideek gaurko kontzertua. Sei abestik osatu dute, besteak beste, Lesbordesen *Kantuz*, *Let it shine* edota itxialdian landutako Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak*. Kanta-zerrendak entzuleak asebeste zituela esan daiteke, izan ere, zutik jarrita txalo zaparrada batekin eskerrak eman baitzizkiete abeslariari.



Karmengo Amaren ohorezko meza egin zuten atzo oriatarrek. TXINTXARRI



Alboka Abesbatzak ikasturteari amaiera eman zion, segurtasun neurriak jarraituz. TXINTXARRI